

CNMVko erregistro-zenbakia: 4449

**Kudeatzailea:** CAJA LABORAL GESTION, S.G.I.I.C., S.A. **Bestorearen taldea:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Auditorea:** PRICEWATERHOUSECOOPERS S.  
**Gordailuzaina:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Gordailuzainaren taldea:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Gordailuzainaren ratinga:** BBB+ (Fitch)  
**Konpartimentudun fondoa:** Ez **Erregistro-data:** 2012/03/02an

Txosten hau eta aldizkako azken txostenak bide telematikoen bitartez daude erabilgarri [www.laboralkutxa.com](http://www.laboralkutxa.com)  
 Bezeroek IKE-ei buruz egiten dituzten kontsultak hemen argituko ditu erakunde gestoreak:

**Helbidea:** Jose Maria Arizmendiarieta, 5-3 20500 - Arrasate/Mondragón Guipuzcoa **Telefonoa:** 943790114  
**Helbide elektronikoa:** Fondosdelnversion@laboralkutxa.com

Era berean, bezeroarentzako arreta-departamentu bat duzu, kexak eta erreklamazioak bideratzeko. CNMVk ere inbertitzailearen Arreta Bulegoa jartzen dizu eskura, 902 149 200 telefono-zenbakian eta [inversores@cnmv.es](mailto:inversores@cnmv.es) helbide elektronikoa.

## 1. Inbertsio-politika eta izendapen-dibisa

### Kategoria

Fondo mota: Fondo que invierte mayoritariamente en otros fondos y/o sociedades.  
 Inbertsio-bokazioa: GLOBALA.  
 Arrisku-profila: 6 (1etik 7ra bitarteko eskala baten)

### Deskribapen orokorra

Inbertsio politika: Gestioaren erreferentzia % 50 MSCI World + % 15 BofA ML 3-5 Euro Government + % 20 BofA ML Global large Cap Corporate + % 10 BofA ML Global High Yield + % 5 Eonia da. Ondarearen % 50-100 inbertituko da gestio-erakundearen taldekoak diren edo ez diren Finantza IKE-etan (aktibo egokia), harmonizatuak izan ala ez (IKE harmonizatu gabeetan, % 30 gehienez); erabateko itzulkinetako IKE-etan (merkatuaren bilakaerari lotuta ez daudenak), berriz, % 30raino inberti daiteke. Zuzenean edo zeharka, edozein kapitalizazio eta sektoretako errenta aldakorrean inbertitzen da esposizio osoaren % 0-100 artean; gainerakoa, berriz, errenta finko publiko/pribatua, barne direla diru-merkatuan kotizatzen diren edo ez diren tresnak, likidoak eta, batik bat, gordailuak, titulazioak, Espainiako finantza-erakundeetako mendeko zorra, hipotekazedulak eta Espainiako jaulkitzaileen zor-agiriak. Dibisa-arriskurako esposizioa % 0-100 artean izango da. Zuzenean inbertsioan eta zeharkakoan, ertaina (gutxienik) izan behar du errenta finkoko jaulkipen kalitateak (BBB-, gutxienez), edo, hortik beherakoa bada, une bakoitzean Espainiako Erresumak daukana; behe-mailako kalitatekoa (BBB- baino txikiagoa), berriz, esposizio osoaren % 35eraino izan daiteke. Errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupenak -2 eta 7 urte bitartekoak izan behar du. Batez ere ELGEkoak izan behar dute jaulkitzaileek eta merkatuek, eta esposizio osoaren % 35eraino inberti daiteke suspertzen ari diren herrialdeetan. Herrialde horietako errenta aldakorretan egiten den inbertsioak ez du gaingitu behar % 20, ez eta % 35 ere suspertzen ari diren herrialdeetan eta/edo errendimendu handiko jaulkitzaileetan egiten denak. Aukera egongo da, % 35etik gora Europar Batasuneko estatu batean, autonomia-erkidego batean, toki-erakunde batean, Espainia kide duten nazioarteko erakundeetan eta Espainiako bano kaudimen handiagoko estatuetan inbertitzeko.

### Tresna deribatuetak eragiketak

Fondoak, konpromisoaren metodologia erabiliko du finantza tresna deribatuei dagozkien merkatu arriskua neurtzeko.

Deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresnekin jardun ahal izango da estaldura-eta inbertsio-helburuetarako, eta deribatuen merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren finantza-tresnekin ere egin ahal izango dira eragiketak, estaldura- eta inbertsio-helburuetarako. Eragiketak egiteko modu horrek, baina, arriskuak ditu; izan ere, estaldura perfektua ez izatea gerta liteke, palanka-efektua eragiten dutelako eta konpentsazio-ganberarik ez dagoelako. Informazio-liburuxkak inbertsio-politikari buruzko informazio zehatzagoa jasotzen du.

### Izendapen-dibisa

EUR

## 2. Datu ekonomikoak

### 2.1.a) Datu orokorrak (Akzioak)

Informazio eskuragarririk ez dagoenean, gelaxkak zuri ageriko dira

	Oraingo aldia	Aurreko aldia
Egungo partaidetza kopurua	3.684.909,97	3.642.554,63
Egungo partaide kopurua	555	543
Egungo partaidetzagatik banatutako mozkin gordinak (EUR)		
Gutxieneko inbertsioa (EUR)	1000	

### 2.1.b) Datu orokorrak (Ondarea/Likidazio-balioa)

Data	Aldiaren amaierako ondarea (Milaka EUR)	Aldiaren amaierako likidazio-balioa EUR (*)
Txostenaren aldia	31.179	8.4614
2018	25.747	7.2358
2017	23.893	7.9203
2016	20.329	7.3579

### 2.1.b) Datu orokorrak (Komisioak)

Aldian batez besteko ondarearen gainean kobratutako komisioak

Gestio-komisioa						Kalkulu-oinarria	Inputazio-sistema
Benetan kobratutako %-a			Metatua				
Aldia		Metatua		Metatua		Ondarea	
ondarearen gain	emaitzen gain	Gutxira	ondarearen gain	emaitzen gain	Gutxira		
0,86		0,86	1,70		1,70	Ondarea	

Gordailuzain-komisioa		
Benetan kobratutako %-a		Kalkulu-oinarria
Aldia	Metatua	Ondarea
0,05	0,10	Ondarea

### 2.1.b) Datu orokorrak (Biriketa/Errentagarritasuna)

	Uneko aldia	Aurreko aldia	Uneko urtea	2018 urtea
Zorroaren errotazio-indizea	0,14	0,28	0,42	0,79
Likidaziaren batez besteko errentagarritasuna (% eguner	0	0	0	0

OHARRA: Aldia hiruhilekoa edo seihelekoa izan daiteke, dagokionaren arabera. IKEaren likidazio-balioa egunero zehazten ez bada, azken datu erabilgarria hartuko da errentagarritasuna eta ondarea zehazteko.




### 3. Finantza-inbertsioak

#### 3.1. Finantza-inbertsioak burutzapenaren balio zenbatetsian (milaka eurokotan) eta ondarearen gaineko ehunekotan, aldiaren amaieran.

Inbertsioaren eta jaulkitzailearen azalpena	Dibisa	Oraingo aldia		Aurreko aldia	
		Merkatu-balioa	%	Merkatu-balioa	%
REPO LABORAL KUTXA 2020-01-02	EUR	4.590	14,72		
<b>ALDI BATERAKO ESKURATURIKO AKTIBOAK GUZTIRA</b>		<b>4.590</b>	<b>14,72</b>		
<b>ERRENTA FINKOA GUZTIRA</b>		<b>4.590</b>	<b>14,72</b>		
<b>BARRUKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA</b>		<b>4.590</b>	<b>14,72</b>		
BONO UNITED STATES 2,25 2027-02-15	USD	612	1,96	603	2,06
<b>Urtebetetik gora kotizatutako zor publikoa guztira</b>		<b>612</b>	<b>1,96</b>	<b>603</b>	<b>2,06</b>
<b>KOTIZATUTAKO ERRENTA FINKOA GUZTIRA</b>		<b>612</b>	<b>1,96</b>	<b>603</b>	<b>2,06</b>
<b>ERRENTA FINKOA GUZTIRA</b>		<b>612</b>	<b>1,96</b>	<b>603</b>	<b>2,06</b>
PARTICIPACIONES ISHARES EURO STOXX50	EUR	74	0,24	70	0,24
PARTICIPACIONES LYXOR ETF MSCI EMER	EUR	1.284	4,12	1.187	4,07
PARTICIPACIONES INVESCO PANEU STR EQ	EUR	28	0,09	263	0,90
PARTICIPACIONES PIMCO FUND EMERG M	EUR	606	1,94	587	2,01
PARTICIPACIONES PIMCO CAPITAL SEC	EUR	737	2,36	700	2,40
PARTICIPACIONES ETF DBX EMG MKT	EUR	612	1,96	559	1,91
PARTICIPACIONES HSBC EUR HYLD BON IC	EUR	1.275	4,09	1.229	4,21
PARTICIPACIONES ABERDEEN GLOB A2 **	EUR	210	0,67	203	0,69
PARTICIPACIONES MORGAN STANLEY	EUR	209	0,67	207	0,71
PARTICIPACIONES ABERDEEN EM INFR.Y2	EUR	1.083	3,47	1.047	3,59
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	1.553	4,98	1.421	4,87
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	8	0,03	907	3,11
PARTICIPACIONES THREADNEEDLE	EUR	350	1,12	282	0,97
PARTICIPACIONES ETF DBX EMG MKT	EUR	1.283	4,12	1.171	4,01
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	528	1,69	483	1,66
PARTICIPACIONES SCHRODER ISF EUR DI	EUR	390	1,25	380	1,30
PARTICIPACIONES PIMCO GLOB INV	EUR	287	0,92	286	0,98
PARTICIPACIONES ISHARES CORE FTSE	EUR	457	1,47	379	1,30
PARTICIPACIONES THREADNEEDLE	EUR	424	1,36	351	1,20
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR			535	1,83
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	147	0,47	259	0,89
PARTICIPACIONES MS EMERGING	EUR	783	2,51	765	2,62
PARTICIPACIONES LAZARD	EUR	279	0,90	264	0,91
PARTICIPACIONES AMUNDI ETF S&P 500	EUR	1.506	4,83	1.532	5,25
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	1.356	4,35	1.249	4,28
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	150	0,48	137	0,47
PARTICIPACIONES ISHARES MSCI AUST	EUR	1.158	3,71	1.005	3,44
PARTICIPACIONES NORDEA BANK AD	EUR	15	0,05	15	0,05
PARTICIPACIONES THREADNEEDLE EUR	EUR	790	2,53	730	2,50
PARTICIPACIONES FIDELITY FGLOB****	EUR	648	2,08	608	2,08
PARTICIPACIONES FIDELITY FNDS EU YD	EUR	737	2,36	681	2,33
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	899	2,88	664	2,27
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	1.303	4,18	997	3,42
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR	196	0,63	636	2,18
PARTICIPACIONES ISHARES	EUR			575	1,97
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	1.380	4,42	1.254	4,30
PARTICIPACIONES JUPITER GLOBAL FUND	EUR	597	1,92	302	1,03
PARTICIPACIONES SCHRODER ISF EUR DI	EUR	286	0,92	291	1,00
PARTICIPACIONES PETERCAM L BUNDS EUR	EUR	330	1,06		
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	295	0,95		
PARTICIPACIONES UBS AG	EUR	811	2,60		
PARTICIPACIONES JPM EUR STRAT DIV	EUR	325	1,04		
<b>IKE-AK GUZTIRA</b>		<b>25.389</b>	<b>81,42</b>	<b>24.211</b>	<b>82,95</b>
<b>KANPOKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA</b>		<b>26.001</b>	<b>83,38</b>	<b>24.814</b>	<b>85,01</b>
<b>FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA</b>		<b>30.591</b>	<b>98,10</b>	<b>24.814</b>	<b>85,01</b>

Oharrak: Aldia hiruhilekoaren edo seiuhilekoaren amaiera izan daiteke, dagokionaren arabera.

#### 3.2. Finantza-inbertsioen banaketa aldiaren itxieran: Ondare osoaren gaineko ehunekoa



#### 3.3. Deribatuetako eragiketak. Aldiaren amaieran irekitako posizioen laburpena (zenbatekoa mila eurokotan)

azpikoa	Instrumentua	Zenbateko nominal konprometitua	Inbertsioaren helburua
BO. US TREASURY NOTE 280221	V/ Fut. FU. US TNOTE 5 200228	1.381	Inbertsioa
BO. US TREASURY NOTE 150824	C/ Fut. FU. US TNOTE 10 200228	231	Inbertsioa
BO. ESTADO ALEMAN 1,00% 250815	V/ Fut. FU. EURO BUND 200306	345	Inbertsioa
<b>Errenta finkoa azpikoa guztira</b>		<b>1.957</b>	
DJ EURO STOXX 50	V/ Opc. PUT EURO STOXX50 3000 DEC 2020	2.790	Inbertsioa
DJ EURO STOXX 50	V/ Opc. PUT EURO STOXX50 3600 JUN 2020	1.188	Inbertsioa
<b>Errenta aldakorrek azpikoa guztira</b>		<b>3.978</b>	
<b>OBLIGAZIOAK GUZTIRA</b>		<b>5.935</b>	

#### 4. Gertaera garrantzitsuak

	Bai	Ez
a. Harpidetza/errenboltoak aldi baterako etetea		X
b. Harpidetza/errenboltoak berriz abiatzea		X
c. Ondare-errenbolto esanguratsua		X
d. Ondarearen % 5etik gorako zorpetzea		X
e. Sozietate gestorea ordeztzea		X
f. Erakunde gordailuzaina ordeztzea		X
g. Sozietate-gestorearen kontrola aldatzea		X
h. Informazio-liburuxkaren funtsezko elementuak aldatzea		X
i. Fusio-prozesua baimentzea		X
j. Beste gertaera garrantzitsu batzuk		X

#### 5. Gertaera garrantzitsuak azaltzeko eranskina

Ez aplikagarria.

#### 6. Lotutako eragiketak eta beste informazio batzuk

	Bai	Ez
a. Fondoaren ondareko partaide esanguratsua (% 20tik gorako ehunekoa)		X
b. Garrantzi txikiko aldaketak Araudian		X
c. Gestorea eta gordailuzaina talde berekoak dira (Balore Merkatuari buruzko Legearen 4. artikulua arabera)	X	
d. Baloreak erosi edo saltzeko eragiketak egin dira eta gordailuzaina saltzailea edo eroslea izan da, hurrenez hurren	X	
e. Gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunderen batek jalki edo abalaturako baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, edo erakunde hori merkaturatzailea, aseguratzailea, zuzendaria edo aholkularia izan da, edo lotutako		X
f. Baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, eta horien kontrapartida gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunde bat izan da, gestore berak gestionatutako IKE bat edo taldeko beste gestore bat		X
g. Gestorearen taldeko erakundeek sarrerak jaso dituzte eta horien jatorria IKEak ordaindutako komisioak edo gastuak dira		X
h. Lotutako beste informazio edo eragiketa batzuk		X

#### 7. Lotutako operazioen gaineko eranskin esplikatiboa eta ohartarazpenak

Seihilekoan zehar berrerosteko hitzarmena duten eragiketak gauzatu dira entitate gordailuzainarekin, 4,6 milioi eurokoak erosketa-kontzeptuan (batez besteko ondarearen % 15,46), eta 0 milioi eurokoak salmenta-kontzeptuan (ondarearen % 0).

#### 8. CNMvk agindutako informazio eta ohartarazpenak

Ez aplikagarria.

#### 9. Aldizkako txostena azaltzeko eranskina

##### 1. MERKATUEN EGOERA ETA FONDOAREN BILAKAERA

a) Gestoreak merkatuen egoerari buruz duen ikuspegia Munduko ekonomia % 3 hazi da 2019an, hazkunderik txikiena 2009az geroztik, eta aurreko urtean baino 6 hamarren gutxiago. Garatzeko bidean dauden ekonomiek zein ekonomia aurreratuek apaldu egin dute hazkunde-tasa. Halere, azken horiek hein handiagoan hoztu dira, aurreko urteko % 2,3ko tasatik % 1,7 inguruko tasara jaitsi badira 2019an. Zalantzarik gabe, ezegonkortasun politikoa eragozpena izan da bai merkataritza globalerako bai enpresen inbertsiorako, eta kanpoaldearekiko esposizio handiagoa duten ekonomiak kaltetu ditu gehien. Hori are agerikoagoa izan da urteko bigarren erdian. Ondorioz, Europako ekonomia nagusiak hazkunde hutsala izan du (% 0,1ekoa urteko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan). Dezelerazio globala ikusita, banku zentralak esku hartzea erabaki dute. Eta, berriz ere, Erreserba Federala izan da aktiboena. Interbentzio-tasa jaitsi egin du (% 2,50etik % 1,75era), batez ere Txinarekiko eta Europarekiko gerra komertzialaren ondorio negatiboak arintzeko. Jaitsiera horrek oso eragin positiboa izan du finantza-merkatuetan, haiek izan baitira onurarik handiena ateratu dutenak. Hazkundera indartsurik ezearan, inflazio globalak ere apaldu egin dute igoera. Hala, ekonomia aurreratuek oso tasa txikiak itzuli dira (% 2tik behera AEBn eta % 1 ingurura eurogunean), eta EZBk nahikoa marjina izan du, zorra erosteko programa berreskuratzeko.

Banku zentralen jarduerak argi eta garbi eragotzen du tasa monetarioen igoera. Hala, minimoetan jarraitzen dute eurogunean, eta, herrialde gehienetan, 2 urterako tasa negatiboetan. Estatu Batuetan, interbentzio-tasaren 3 jaitsierek % 1,50era eraman dute 2 urterako tasa, hots, 2017ko maila berera.

Epe ertain eta luzerako zorrak bilakaera positiboa izan du eurogunean. Alemaniako tasek zertxobait gora egin badute ere lehen seihilekoko minimoetatik, eta Frantziakoak eta Espainiakoak gorabeherarik gabe jarraitu badute ere, gainerako ekonomietan tasa-jaitsierak ikusi ditugu, batik batik tartarik luzean (Italiako 10 urterako BETA oinarritzko 70 puntu jaitsi da seihilekoan).

AEBko gobernu-zorrak portaera positiboa izan du, Erreserba Federalak egindako murrizketari esker. BETeko lagapenak oinarritzko 10 eta 20 puntu bitartekoak izan dira urtearen bigarren zatian, eta horrek mesede egin dio fondoaren portaerari.

Kreditu-kalitaterik handieneko eurotako zor korporatiboak irabaziak izan ditu, berriz ere, hiruhilekoan. Egonkortasunari (tasen kurba subiranoren mugimendu arinari) mesede egin dio, gainera, horien aurreko diferentziala murriztu izanak.

High Yield zor korporatiboak ere gobernu-zorraz gainera irabaziak izan ditu, horiekiko diferentziala txikiu zaion heinean (seihilekoan oinarritzko 15 puntu). Gainera, merkatu horrek eskaintzen duen errentagarritasunak nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du (% 3,15eko BETekoa).

Burtsei ekarri die onurarik handiena banku zentralak egin duten urratsak. Seihilekoko irabaziak lbaxaren % 3,81etik Nasdaqaren % 12tik gora doaz, nahiz eta 2019an enpresa-irabazi globalen hazkundeak erorikoa izan. Ameriketako ekonomiak indar handiagoa izatearen ondorioz eta sektore estrategiko batzuek, hala nola teknologiak eta osasunak, pisu handiagoa izatearen ondorioz, indize batzuen irabaziak beste batzuenak baino handiagoak izan dira.

b) Inbertsioari buruz hartutako erabaki orokorrak

Fondoak hauetan inbertitu du: inbertsio-fondoetan eta errenta finko eta aldakor globaleko ETF eta gerokotetan. Epealdi honetan, % 20ko esposizioa izan da errenta finkoan (bereziki inbertsio-mailako kredituan eta garatzeko bidean dauden merkatuetan), % 65ekoa errenta aldakor globalean eta % 20koa inbertsio-faktoreko estrategietan.

c) Erreferentzia-indizea

Epealdian, fondoaren errentagarritasuna handiagoa izan da Espainiako urtebeterako Altxorraren letrarena baino. Era berean, fondoaren benchmarkarena baino txikiagoa izan da; % 0,717 txikiagoa, hain zuzen.

d) Inbertsio Kolektiboko Erakundearen (IKEaren) ondarearen bilakaera, partaideak, errentagarritasuna eta gastuak

Aldi honetan, 12 partaideko aldakuntza izan du fondoak, eta % 5,598ko errentagarritasun garbia. Horrenbestez, epealdia ixtean, 1.992 mila euroko aldakuntza izan da ondarean, eta, beraz, 31.179 mila eurokoa da orain. Fondoak egindako

gastuek % 1,14ko eragina izan dute berorren errentagarritasunean. Horrez gain, % 0,220ko gastu gehigarria egon da, inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetan egindako inbertsioagatik. Epealdia ixtean, ondarearen % 80,68 inbertitu da IKE-etan. e) Fondoaren errendimendua gestorearen gainerako fondoekin alderatuta Gestorearen batez bestekoa (% 1,608koa) baino errentagarritasun handiagoa eman du fondoak.

#### 2. INBERTSIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

##### a) Epealdian egindako inbertsioak

Seihileko honetan, nazioarteko errenta aldakorreko eta finkoko fondoak salerosteko eragiketa ugari egin dira, bai eta eurotako eta dolarretako errenta aldakor eta finkoko deribatuetan salerostekoak ere.

##### b) Baloreak mailegatzeko eragiketak

N/A.

##### c) Deribatuetako eragiketak eta aktiboen aldi baterako eskurapena

Tresna deribatuetan egindako eragiketek doikuntza izan dute helburu, unean uneko inbertsio-tarteak fondoaren inbertsio-politikan zehaztutako mugen barruan egon daitezten. 7. eranskinean adierazi denez, aktiboen aldi baterako eskurapenak egin dira. Batez besteko palanka-efektua % 48,452koa izan da.

##### d) Inbertsioei buruzko bestelako informazioa

N/A.

#### 3. ERRENTAGARRITASUN-HELBURU ZEHATZAREN BILAKAERA

N/A.

#### 4. FONDOAK BEREGANATUTAKO ARRISKUA

Fondoak bereganatutako arriskua, epealdian egunero izandako likidazio-balioaren urteko hegakortasunaren bitartez neurtzen dena, % 2,005ekoa izan da. Urtebeterako Altxorraren letrek % 0,304ko hegakortasuna izan dute epe berean, eta lbex35ak % 13,052koa. Fondoaren azken 5 urteetako hileko VaRa % 1,43koa izan da.

#### 5. ESKUBIDE POLITIKOAK ERABILTZEA

N/A.

#### 6. INFORMAZIOA ETA CNMV-REN OHARTARAZPENAK

N/A.

#### 7. ELKARTASUN-FONDOAREN ERAKUNDE ONURADUNAK ETA EMAN ZAIEN ZENBATEKOA

N/A.

#### 8. ANALISI-ZERBITZUAREN ONDORIOZKO KOSTUAK

Fondoak ez du inbertsioei buruzko finantza-analisirako zerbitzuaren ondoriozko gasturik izan. Gestoreak prozedura zehatzak ditu bitartekariak aukeratzekoan exekuziorik onenaren printzipioa betetzeko, eta haien bidez burutu dira Inbertsio Kolektiboko Elkartearen eragiketak.

#### 9. ASMO JAKIN BATERAKO KONPARTIMENTUAK

N/A.

#### 10. MERKATUAREN AURREIKUSPENAK ETA FONDOAN ESPERO DEN JARDUKETA

Banku zentralen diru-politikak laguntza eman beharko lieke maila negatiboetan dauden tasei, diru-tarteetan errentagarritasuna lortzea zailtzen dute eta.

Gauzak horrela, interes-tasen beherakadak errealizazioak ekartzea zaila izango da eurogunean; horregatik dugu posizio mugatua gobernu-zorreen, eta horregatik eutsi diegu interes-tasaren arriskuari benchmarkaren azpian.

Gainera, zaila ikusten dugu 2019an ikusi ditugun diferentzial-murrizketekin jarraitzea - horregatik izan dugu zorroan posizio txikia, kreditu-kalitate handiko korporatuetan.

Halere, positiboagoak gara High Yield zor korporatiboaren merkatuan, batetik, eskaintzen duen errendimenduak handia izaten jarraitzen duelako eta, bestetik, zor subiranoarekiko diferentziala oraindik urruti dagoelako minimotik.

Gainera, garatzeko bidean dauden herrialdeetako zorrak zorroan edukitzeko moduko aktiboa jarraitzen du izaten.

Hurrengo hiruhilekoei begira, gure ustetan zorroari errentagarritasuna ematen jarraituko du errenta aldakorrek, betiere enpresa-irabaziak erritmo onean haztera itzuliko direlako 2020an (% 10 inguru, Europan eta AEBn). Gainera, merkatu hau erakargarriago bihurtuko dute irabaziok, gainerako errentagarritasun-iturriek agortzen ari baitzaizkie etekinak emateko gaitasuna.

Hori guztia dela eta, gure ustez, datozen hiruhilekoetan positiboa izango da fondoaren errentagarritasuna.

## 10. Ordainsari politikari buruzko informazioa

Inbertsio Kolektiboko Erakundearen Legearen 46 bis.1 artikulua betetzeko, Caja Laboral Gestión SGIIC SAK aitortu du 2019an sozietate gestoreak 563 mila euro ordaindu dizkiela guztira bere langileei: 524 mila euro ordainketa finko gisa eta 39 mila euro ordainketa aldakor gisa, 9 langilerentzat. Guztiek ordainketa aldakorra jaso dute. Ez dago SGIICak gestioaren ondoriozko konpentsazio moduan IKEaren mozkinetan parte hartzearen ondorioz lortutako ordainketarik.

Identifikaturiko kolektiboaren ordainketari dagokionez, horren jarduketak eragin materiala izan baitezake sozietatearen arrisku-profilean, 370 mila eurokoa da ordainketaren zenbateko agregatua: 83 mila euro zuzendari-taldeko pertsona batenak dira (63 mila ordainketa finkoari dagozkio eta 20 aldakorri) eta 286 mila euro gestorearen arrisku-profilean eragina duten beste 5 langilerenak (275 mila ordainketa finkoari dagozkio eta 11 mila aldakorri).

Caja Laboral Gestión sozietateko langileei Caja Laboral Coop. de Crédito sozietateak onartutako lan-arauak ezartzen zaizkie ordainketa finkoari dagokionez. Gainera, Caja Laboral Gestiónek ordainketa aldakorretako urteko plan bat du finkatuta. Ordainsari-politikaren oinarri dira: sozietate gestoreak goi-zuzendaritzarentzat finkatutako helburuen betetze-maila, departamentu bakoitzeko (gestioko, administrazioko eta Middle office-etako) langileen helburu partikularren betetze-maila, eta, neurri txikiagoan, langile bakoitzaren jardueraz zuzendaritzak egindako balorazioa. Ez dago gestio-komisio aldakorrei lotutako inongo ordainketarik. 2019an ez da aldaketarik egin ordainsari-politikan. 2019an ordainsari-politikari egindako berrikuspenaren emaitza ona izan da.

---

**11. Balore finantzarioen erakiketen inauruko informazioa. bermeen berrerabiloena eta itzulera osoaren trukeak (2015/2365 EBko araudia)**

Baloreak finantzatzeko eragiketak egin dira LABORAL Kutxarekin, 7. eranskinean azaltzen denez. Ez da egin bermeak berrerabiltzeko eragiketarik edo guztizko errendimenduko swapik.